Sin./Fdo.: LOREA BILBAO IBARRA - 2023-04-04
EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA-REN FORU DIPUTATUA
DIPUTADO/A FORAL DE DEPARTAMENTO DE EUSKERA, CULTURA Y DEPORTE
Sin./Fdo.: UNAI REMENTERIA MAIZ - 2023-04-18
AHALDUN NAGUSIA
DIPUTADO/A GENERAL

Akordioa/Acuerdo: DF 00047/2023 - Data/Fecha: 2023-04-18
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA - 2023-04-18
GZko 4.gaia onartuta - Aprobado, asunto 4) de OD



Bizkaiko Foru Aldundiaren FORU DEKRETUA, 2023ko ekitaldian Bizkaiko Lurralde Historikoan aisia eta astialdiko koordinazio-egiturak mantentzeko foru dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dituena.

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones forales destinadas al mantenimiento de estructuras de coordinación de ocio y tiempo libre en el Territorio Histórico de Bizkaia durante el ejercicio 2023.

Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren helburuetako bat da elkarteetako gazteen kultura parte-hartzailea eta gazte-elkarteak sustatzea.

El Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia tiene entre sus objetivos fomentar la cultura participativa de la juventud asociada, así como el asociacionismo juvenil.

Helburu horretarako, zenbait dirulaguntza-lerro eskaintzen ditu urtero, sektore horretan lan egiten duten erakundeei laguntzeko, behar dituzten baliabide ekonomikoak jaso ditzaten, modu horretan beren ekintza-programa eta egituraren egonkortasuna bermatzeko eta gure lurraldean duten presentzia indartzeko.

Para ello cuenta anualmente con una serie de líneas subvencionales que tienen por objeto apoyar a las entidades que trabajan en este sector con el fin de dotarlas de los recursos económicos necesarios que garanticen no solo su programa de acción sino su propia estabilidad estructural, reforzando de esta manera su presencia en nuestro Territorio.

Azken eremu horri erantzuten dio deialdi honek; izan ere, beronen bidez, gure lurralde historikoko aisialdi eta astialdiko koordinazio-egiturak mantentzen eta funtzionatzen lagundu nahi da.

A este último ámbito responde la presente convocatoria, dirigida a apoyar el mantenimiento y funcionamiento de estructuras de coordinación de ocio y tiempo libre en nuestro Territorio Histórico.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9A1L-88VK-P7BJ-N6AF
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Testuinguru horretan, hainbat izaera eta jatorritako taldeak biltzeko aukera ematen duten elkarte-egiturak funtsezko tresna dira lurraldean sustraitu daitezen.

En ese contexto, la inversión en estructuras asociativas que permitan aglutinar a grupos de diversa naturaleza y procedencia se configura como una herramienta fundamental para favorecer su implantación territorial.

Proposatu den izaera orokorreko xedapenaren helburu den gaiaren gaineko eskumena Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio; Autonomi Erkidegoko Erakunde Erkideen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak 7.c) 2 artikuluan ezartzen duenarekin bat, lurralde historikoei dagokie, zeini bere lurraldearen barruan, erkidego osorako erakundeen legeria betearaztea honako arlo hauetan, besteak beste: erkidegoaren garapena; emakumea; haur, gazte eta adinekoentzako politika, eta aisialdia. Nolanahi ere, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideek ere zuzenean jardun dezakete arlootan.

La competencia sobre la materia objeto de la disposición de carácter general propuesta corresponde a la Diputación Foral de Bizkaia, tal y como se deduce de lo dispuesto en la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, que atribuye a estos últimos en su artículo 7.c) 2, la ejecución dentro de su territorio de la legislación de las Instituciones Comunes, en materia de desarrollo comunitario, condición femenina, política infantil, juvenil, de la tercera edad, ocio y esparcimiento, sin perjuicio de la acción directa en estas materias por parte de las Instituciones Comunes del País Vasco.

Ildo horretan, Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 29ko 131/2020 Foru Dekretuak (haren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren Egitura Organikoari buruzko Erregelamendua onesten da) berariaz esleitzen dio sail horri aisialdiaren arloko elkarteentzako laguntzak kudeatzeko eskumena.

En ese sentido, el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 131/2020, de 29 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte, atribuye expresamente a este Departamento competencia en materia de gestión de las ayudas a las asociaciones del ámbito del tiempo libre.

Era berean, xedapen hau izapidetzean printzipio hauen arabera jarduten da: premia eta eraginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna, azkartasuna eta efizientzia, bai eta erregulazio onaren printzipioei datxezkien kontuak ematea ere, eta hori guztia Bizkaiko Foru Aldundiaren 2021eko ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz. Azkenik, maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretua betetzen da, zeinaren bidez ezartzen baitira Bizkaiko Foru Aldundiaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak.

Asimismo, en la tramitación de esta disposición se actúa de acuerdo con los principios de necesidad y eficacia, proporcionalidad, seguridad jurídica, transparencia, celeridad y eficiencia, así como el de rendición de cuentas inherentes a los principios de buena regulación y ello de acuerdo con lo establecido en artículo 3 del Decreto foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021, de 15 de junio, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones generales en la Diputación Foral de Bizkaia, y a lo establecido en el artículo 129 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, que aborda iguales principios con carácter general. Finalmente, se cumple con lo establecido en el Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo, que establece los

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9A1L-88VK-P7BJ-N6AF
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia.

Bestalde, aurrerapen ekonomikoa eta soziala lortzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak ezinbestekotzat jotzen du emakume eta gizonen benetako berdintasuna lortzeko aurrerapausoak ematea, eta, bide horretan, hainbat urte daramatza berdintasunaren arloan lanean. Ildo horretan, dekretu honek genero-ikuspegia jasotzen du, bai berau prestatzeko orduan bai beronen aplikazioan, kontuan hartuta zer adierazten den Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna Lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan. Gainera, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuan xedatutakoa. Izan ere, foru-dekretu horren bidez, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak ezartzen dira; ebaluazio hori 4/2005 Legean dago aurrez ikusita.

Por otra parte, y para lograr el progreso económico y social, la Diputación Foral de Bizkaia considera imprescindible avanzar en la consecución real y efectiva de la igualdad de mujeres y hombres y para ello lleva numerosos años trabajando ese campo. En esta línea, este decreto incorpora la perspectiva de género tanto en su elaboración como en su aplicación, tal y como se señala en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres y en la Norma foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres. Además, se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto foral de la Diputación Foral de Bizkaia 141/2013, de 19 de noviembre, por el que se fijan las Directrices en las que se recogen las pautas a seguir para la realización de la evaluación previa del impacto en función del género prevista en la Ley 4/2005.

Azkenik, adierazi behar da, Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat, dirulaguntzen dekretu hau prestatzean txosten hauek eman direla:

1. Genero-eraginaren Atariko Ebaluazioa.

2. Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren txosten juridikoa.

3. Generoaren Eraginaren Aurretiazko Ebaluazioari buruzko txostena.

4. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.

5. Legezkotasunari buruzko txostena.

Cabe señalar finalmente que, atendiendo a lo dispuesto en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021, de 15 de junio, en la elaboración del presente decreto de subvenciones se han emitido los siguientes informes:

1. Evaluación Preliminar del Impacto de Género.

2. Informe Jurídico del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte.

3. Informe de Evaluación Previa del Impacto en Función del Género.

4. Informe de control económico.

5. Informe de legalidad.

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k) artikuluak ezartzen du foru diputatuen eskumena dela, besteak beste, Foru Aldundiari proposamenak aurkeztea haien sailetako gaiei buruzko foru dekretuen

El artículo 39.k) de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, señala que compete a los diputados forales proponer a la Diputación Foral, para su aprobación, los proyectos de decreto foral en las materias propias

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9A1L-88VK-P7BJ-N6AF
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

proiektuak onar ditzan. Bestalde, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.1 artikuluak ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari diru-laguntzen emakida arautuko duten oinarriak onesteko. Eta, azkenik, Diru-laguntzen Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.1 artikuluak aukera ematen du diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko, eta ezartzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluari dagokiola onartzea egintza bakarrean.

Hori dela bide, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru-diputatuaren ekimenez, eta aurrez Bizkaiko Foru Aldundiak azterturik, honako hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. *Foru dirulaguntzen oinarriak eta deialdi publikoa onartzea.*

Bizkaiko Lurralde Historikoan 2023ko ekitaldian aisia eta astialdiko koordinazio-egiturak mantentzeko foru dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dira.

## Azken xedapenak

Azken xedapenetako lehenengoa. *Erregelamendu bidez garatzeko gaikuntza.*

Gaitu egiten da Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua, Foru Dekretu honetan xedatutakoa garatu, gauzatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan. Gaikuntza horren barruan sartzen da dagozkion diru-laguntzak ematea.

Azken xedapenetako bigarrena. *Indarrean jartzea.*

de su Departamento; el artículo 16.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral habilita a la Diputación Foral de Bizkaia para aprobar las bases reguladoras de su concesión, y el artículo 41.1 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, establece la posibilidad de la tramitación conjunta de las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones, correspondiendo al Consejo de Gobierno su aprobación en un sólo acto.

En su virtud, a iniciativa de la diputada foral del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte, y previa deliberación de la Diputación Foral de Bizkaia,

DISPONGO

Artículo único. *Aprobación de las bases y de la convocatoria pública de subvenciones forales.*

Se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones forales destinadas al mantenimiento de estructuras de coordinación de ocio y tiempo libre en el Territorio Histórico de Bizkaia durante el ejercicio 2023.

## Disposiciones finales

Disposición final primera. *Habilitación para el desarrollo reglamentario.*

Se habilita a la diputada foral del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte para dictar cuantas disposiciones considere necesarias para el desarrollo, ejecución y aplicación de lo previsto en el presente Decreto Foral. Esta habilitación incluye la concesión de las subvenciones pertinentes.

Disposición final segunda. *Entrada en vigor.*

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9A1L-88VK-P7BJ-N6AF
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Foru Dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el "Boletín Oficial de Bizkaia".

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua / La Diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte. LOREA BILBAO IBARRA

Ahaldun Nagusia / El Diputado General. UNAI REMENTERIA MAIZ

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9A1L-88VK-P7BJ-N6AF
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAN 2023KO EKITALDIAN ZEHAR AISIA ETA ASTIALDIKO KOORDINAZIO-EGITURAK MANTENTZEKO FORU DIRULAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK ETA DEIALDIA.

BASES REGULADORAS Y CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES FORALES DESTINADAS AL MANTENIMIENTO DE ESTRUCTURAS DE COORDINACIÓN DE OCIO Y TIEMPO LIBRE EN EL TERRITORIO HISTÓRICO DE BIZKAIA DURANTE EL EJERCICIO 2023.

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

1. oinarria. *Diru-laguntzaren xedea.*

1. Foru-dekretu honekin bat, jarduera hauek jaso dezakete diru-laguntza: Bizkaiko Lurralde Historikoko koordinazio-egitarauen mantenu eta funtzionamendua, eta gazteen aisia eta astialdian lanean diharduten irabazi-asmorik gabeko erakundeei emandako aholkularitza, 2023ko ekitaldian.

2. Foru dekretu honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira honako hauek:

a) Kirol-programak.

b) Edozein motatako obraren finantzazioa.

c) Entretenitzeko baino ez diren bidaiak.

d) Helburu nagusitzat emakumeak eta genero berdintasuna sustatzea duten proiektuak.

e) Sexuaren araberako diskriminazioa eragiten duten proiektuak.

3. Diruz laguntzeko gastutzat joko dira batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat datozenak, guztiz beharrezkoak direnak eta ezarritako epearen barruan egiten direnak, baina diru-laguntza jaso dezaketen gastuen eskuraketa-kostua ezin da inola ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Hain zuzen, honako hauek dira diruz lagundu daitezkeen gastuak:

TÍTULO I

Disposiciones generales

Base 1. *Objeto de la subvención.*

1. Las actividades subvencionables con arreglo al presente decreto foral son el mantenimiento y funcionamiento de estructuras de coordinación, así como el asesoramiento a entidades sin ánimo de lucro dedicadas al ocio y tiempo libre de carácter juvenil del Territorio Histórico de Bizkaia, durante el ejercicio 2023.

2. Quedarán excluidos del ámbito de aplicación del presente decreto foral:

a) Los programas de contenido deportivo.

b) La financiación de todo tipo de obra.

c) Los viajes de mero entretenimiento.

d) Proyectos que tengan como objeto principal la promoción de la mujer y la igualdad de género.

e) Los proyectos que discriminen por razón de sexo.

3. Tendrán la consideración de gastos subvencionables los que respondan de manera indubitada a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios, y se realicen en el plazo establecido, sin que el coste de adquisición de los gastos subvencionables pueda ser en ningún caso superior al valor de mercado.

Concretamente, tendrán la consideración de gastos subvencionables los siguientes:

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9A1L-88VK-P7BJ-N6AF
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

a) Gazteen aisia eta astialdian lanean diharduten irabazi-asmorik gabeko erakundeetako egituren koordinazio- eta funtzionamendu-zereginetan eta erakunde horienganako aholkularitza diharduten langileen gastuak.

b) Koordinazio, aholkularitzari zuzen-zuzenean loturiko gastu arruntak.

Honako hauek, ez dira diruz lagundu daitezkeen gastuak:

a) Ekipo-ondasunak erostea, baldin eta haien amortizazioa luzeagoa bada foru dekretu honetan jasotzen diren jarduerak egiteko epea baino.

b) Banku-kontuen zorrek sortutako interesak.

c) Korrituak, errekarguak, administrazio-zehapenak eta zigor-zehapenak.

d) Prozedura judizialen gastuak.

e) BEZa, baldin eta berreskuratu edo konpentsatu egin badaiteke. Kasu horretan, BEZik gabe agertu behar dira gastuen zenbatekoak, hala eskabidean agertzen den aurrekontuan, nola diru-laguntzaren justifikazioarekin batera aurkeztuko den gauzatutako aurrekontuan.

f) Oro har, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 29. artikuluarekin bat etorrita, beren-beregi kanpo utzitakoak.

4. Foru-dekretu honen helburua erakunde eskatzaileen ekintzak lagundu eta osatzea da; horregatik ez dira inoiz finantzatuko jardueraren ondoriozko gastu guztiak.

2. oinarria. *Erakunde onuradunak.*

1. Gazteen aisiaren eta astialdiaren arloan diharduten erakundeak koordinatzen dituzten edo halako erakundeei aholkularitza ematen dieten Bizkaiko Lurralde Historikoko erakundeak izan daitezke foru-dekretu honek arautuko dirulaguntzen onuradun, maiatzaren 31ko 5/2005

a) Los gastos del personal dedicado a labores de coordinación y funcionamiento de las estructuras, y de asesoramiento a las entidades sin ánimo de lucro dedicadas al ocio y tiempo libre de carácter juvenil.

b) Los gastos corrientes directamente vinculados a las labores de coordinación y asesoramiento.

No tendrán la consideración de gastos subvencionables:

a) La adquisición de bienes de equipo cuya amortización exceda al periodo de ejecución de las actividades previstas en el presente decreto foral.

b) Los intereses deudores de las cuentas bancarias.

c) Intereses, recargos y sanciones administrativas y penales.

d) Gastos de procedimientos judiciales.

e) El IVA cuando sea susceptible de recuperación o compensación. En este caso, tanto en el presupuesto que contiene la solicitud como en el presupuesto ejecutado que se aportará con la justificación de la subvención deberán figurar los importes de gasto sin IVA.

f) En general, los que resultan expresamente excluidos conforme al artículo 29 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo.

4. La finalidad del presente decreto foral será la de apoyar y completar la acción de las entidades solicitantes, nunca la de financiar en su totalidad los gastos derivados de la ejecución de la actividad.

Base 2. *Entidades beneficiarias.*

1. Podrán beneficiarse de las subvenciones reguladas por el presente decreto foral aquellas entidades del Territorio Histórico de Bizkaia que coordinen o asesoren a entidades dedicadas al ocio y tiempo libre de carácter juvenil, que no estando incursas en las circunstancias del artículo 12 de la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9A1L-88VK-P7BJ-N6AF
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Foru Arauaren 12. artikuluan ezarritako egoeretako batean ez badaude eta honako betekizun hauek betetzen badituzte:

a) Egoitza soziala edo ordezkaritza iraunkorra Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea.

b) Irabazi-asmorik ez izatea.

c) Emakumeen eta gizonen artean benetako berdintasuna lortzeko jarduketen garapenean esperientzia eta ibilbidea egiaztatzea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 43. artikuluarekin bat etorrita, foru-dekretu honen 6. oinarrian ezartzen den moduan.

2. Foru dekretu honen aplikazio-eremutik kanpo daude erakunde hauek:

a) Kirol-klubak eta elkarteak.

b) Berariazko gizarte-kolektiboen arreta eta gizarteratzea helburu duten erakundeak, bai eta sindikatuak, alderdiak eta alderdi politikoak ere.

3. Horrez gainera, pertsona juridikoak ezin dezakete dirulaguntza hauen deialdian parte hartu eta ezin daitezke onuradun izan baldin eta:

a) Berdintasunerako eskubidea eta sexu-diskriminaziorik eza urratzeagatik zehapen irmoa izan badute administrazio-bidean, edo lan-arloan edo zigor-arloan, zehapenak ezartzen duen aldian.

b) Beren helburuak, onarpen- edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea edo estatutuak emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioaren aurkakoak badira.

c) Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna Lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak III. tituluan edo Emakume eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak ala Emakumeen eta Gizonen

Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo, reúnan los siguientes requisitos:

a) Tener domicilio social o delegación permanente en el Territorio Histórico de Bizkaia.

b) No tener ánimo de lucro.

c) Demostrar experiencia y trayectoria en el desarrollo de actuaciones dirigidas a la igualdad efectiva de mujeres y hombres, en los términos previstos en la base 6 del presente decreto foral, en coherencia con el artículo 43 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

2. Quedan excluidas del ámbito de aplicación del presente decreto foral las siguientes entidades:

a) Los Clubes y Asociaciones Deportivas.

b) Las entidades cuyo objeto estatutario sea la atención e integración social de colectivos sociales específicos, así como sindicatos, formaciones y partidos políticos.

3. Asimismo, no podrán concurrir ni resultar beneficiarias de subvención las personas jurídicas:

a) Que hayan sido sancionadas en firme en vía administrativa, laboral o penal por vulneración del derecho a la igualdad y a la no discriminación por razón de sexo, durante el período que establezca la correspondiente sanción.

b) Cuyos fines y objetivos, sistema de admisión o acceso, funcionamiento, trayectoria, actuación, organización o estatutos sean contrarios al principio de igualdad de mujeres y hombres.

c) Que incumplan las obligaciones establecidas en el Título III de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres, o en la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres o en la Norma Foral

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9A1L-88VK-P7BJ-N6AF
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauak xedatutako eskakizunak betetzen ez dituztenak.

4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

## II. TITULUA

### Araubide juridikoa

3. oinarria. *Aplikatu beharreko araudia.*

Foru-dekretu honetan jasota ez dagoenerako, honako hauek ezarriko dira: Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua, martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzen Erregelamendua, Administrazioen Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea, 4/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Administrazio Elektronikoaren esparruan Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionala arautzen duena, 311/2022 Errege Dekretua, maiatzaren 3koa, Segurtasuneko Eskema Nazionala arautzen duena eta beste edozein xedapen arauemaile, berak duen izaeragatik ezartzeko modukoa baldin bada.

Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua erakunde pribatu hauei aplikatuko zaie: aurrekontu-ekitaldian zehar Bizkaiko Foru Aldundiaren 100.000 euroko edo gehiagoko laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen dituztenei edo haien urteko diru-sarreren % 40 Aldundiaren laguntzetatik edo diru-laguntzetatik badator, betiere gutxienez 5.000 euro badira.

4. oinarria. *Arau-hausteak eta zehapenak.*

Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluan

## TÍTULO II

### Régimen jurídico

Base 3. *Normativa aplicable.*

Para todos aquellos aspectos no previstos en el presente decreto foral serán aplicables la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral y el Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, así como la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, el Real Decreto 4/2010, de 8 de enero, por el que se regula el Esquema Nacional de Interoperabilidad en el ámbito de la Administración Electrónica, el Real Decreto 311/2022, de 3 de mayo, por el que se regula el Esquema Nacional de Seguridad y cualquier otra disposición normativa que por su naturaleza pudiera resultar de aplicación.

La Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de transparencia de Bizkaia, les será de aplicación a aquellas entidades privadas que durante un ejercicio presupuestario perciban de la Diputación Foral de Bizkaia ayudas o subvenciones que alcancen al menos una cuantía de 100.000 euros o cuando el 40 % del total de sus ingresos anuales tengan el carácter de ayuda o subvención pública foral, siempre que alcancen como mínimo 5.000 euros.

Base 4. *Infracciones y sanciones.*

En lo referente a infracciones y sanciones se aplicará lo establecido en el Título IV de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9A1L-88VK-P7BJ-N6AF
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

xedatutakoa ezarriko da, bai eta arau hori garatzen duen Erregelamenduaren IV. tituluan ere.

otorgadas por la Administración Foral, y en el Título IV de su Reglamento de desarrollo.

## III. TITULUA

## Prozedura

## TÍTULO III

## Procedimiento

5. oinarria. *Eskabideak aurkezteko lekua eta epea.*

1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2.a) artikuluaren arabera, diru-laguntzetarako eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira:

https://www.ebizkaia.eus/es/hasiera

2. Eskabideak aurkezteko epea 15 egun naturalekoa izango da, foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Base 5. *Lugar y plazo de presentación de las solicitudes.*

1. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 14.2.a) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, las solicitudes de subvención deberán presentarse a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia:

https://www.ebizkaia.eus/es/inicio

2. El plazo de presentación de solicitudes será de 15 días naturales contados a partir del día siguiente al de la publicación del presente decreto foral en el Boletín Oficial de Bizkaia.

6. oinarria. *Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak eta betekizunak.*

1. Eskabideak aurkezteko, 39/2015 Legearen 66.6 artikuluan ezarritakoarekin bat, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan bete eta aurkezteko dauden eredu ofizialak erabili behar dira:

https://www.ebizkaia.eus/eu/ hasiera

2. Eskabideekin batera, honako eguneratu agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Erakunde eskatzailearen estatutuen edo eraketa-eskrituren kopia.

b) Dagokion erregistroan inskribatuta egotearen ziurtagiria.

Base 6. *Documentación a acompañar a la solicitud y requisitos.*

1. Las solicitudes deberán, de acuerdo con lo previsto en el artículo 66.6 de la Ley 39/2015, ajustarse a los modelos oficiales disponibles para su cumplimentación y presentación en la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia:

https://www.ebizkaia.eus/es/inicio

2. Las solicitudes deberán ir acompañadas de la siguiente documentación actualizada:

a) Estatutos o escrituras de constitución de la entidad solicitante.

b) Certificado de inscripción en el Registro correspondiente.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9A1L-88VK-P7BJ-N6AF
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Aurreko bi letretan aipatutako dokumentazioa ez da aurkeztu beharko baldin eta aurretiaz aurkeztu bada eta ez bada aldaketarik egon azken hiru urteetan.

No se aportará la documentación indicada en los dos apartados anteriores en caso de haber sido presentada con anterioridad, y siempre que no hubiera sufrido modificación alguna durante los últimos tres años.

c) Erakunde eskatzailearen proiektua, urteko ekitaldian deialdi honen xedeari lotutako funtzionamendu-programak zehaztuta. Gehienez, 15 orriko luzera izango du, eta hauek jaso beharko ditu:

c) Proyecto detallando los programas de funcionamiento vinculados al objeto de la presente convocatoria de la entidad solicitante durante su ejercicio anual. Tendrá un máximo de 15 folios de extensión y deberá contener:

1) Proiektuaren azalpen laburra.

1.º Descripción breve del Proyecto.

2) Helburuak.

2.º Objetivos.

3) Erakunde eskatzaileak koordinaziorako edo aholkularitzarako egingo dituen jarduerak edo estrategiak.

3.º Actividades o estrategias a realizar por la entidad solicitante para llevar a cabo la coordinación o asesoramiento.

4) Proiektuaren lan-eremuak.

4.º Ámbitos de trabajo del Proyecto.

d) 2022an egindako koordinazio edo aholkularitzako zerbitzu-mota adierazten den dokumentua, zeregin hori garatzeko erakunde koordinatu bakoitzarekin edo aholku jaso duen erakunde bakoitzarekin erabilitako tresnak eta prozedurak adieraziz.

d) Documento donde conste el tipo de servicio de coordinación o asesoramiento realizado durante el 2022, indicando las herramientas y procedimientos que se han utilizado en el desarrollo de esta labor con cada entidad coordinada o asesorada.

e) Erakundean euskararen sustapenari eta euskararen erabilera bultzatzeko hartu diren neurriei buruzko dokumentazioa, 10. neurriaren arabera baloratzeko.

e) Documentación relativa a la promoción y a las medidas del uso del euskera en la entidad a efectos de su valoración según la base 10.

f) Eskatzaileak kontratatutako langileen kontratuen kopiak, oinarri honetako 3 c) puntuan zerrendatutakoak.

f) Copias de los contratos de las personas trabajadoras contratadas por la solicitante, relacionadas en el punto 3 c) de esta base.

g) Emakume eta gizonen berdintasuna lortzeko jarduketen arloan duten esperientzia eta ibilbidea egiaztatzeko, agiri hauetakoren bat, lehenago entregatu bada eta indarrean jarraitzen badu izan ezik:

g) Alguno de los siguientes documentos con los que acreditar la experiencia y trayectoria en el desarrollo de actuaciones dirigidas a la igualdad de mujeres y hombres, salvo en el caso de que se haya entregado anteriormente y continúe vigente:

1) Koordinazio-egiturak zer ibilbide egin duen eta zer esperientzia duen emakume eta gizonen arteko berdintasunaren arlo espezifikoan, azken hiru

1.º La trayectoria y experiencia de la estructura de coordinación en materia específica de igualdad entre mujeres y hombres, señalando actuaciones y

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9A1L-88VK-P7BJ-N6AF
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

urteetan egin dituen jarduketa eta lan nagusiak adierazita.

trabajos más relevantes realizados en los últimos tres años.

Entitate sortu berria bada, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren arlo espezifikoan jarduera eta lanak egiteko konpromisoa.

En caso de tratarse de una entidad de nueva creación, compromiso de emprender actuaciones y trabajos en materia específica de igualdad entre mujeres y hombres.

2) Langileek generoaren arloan dituzten tituluak, prestakuntza eta curriculuma.

2.º La titulación, formación y/o currículum del personal en materia de género.

3) Emakume eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzea erakundearen helburua dela jasotzen duen erakundearen sorrera-eskrituraren edo estatutuena.

3.º Escritura fundacional o de los estatutos de la entidad en los que figure como objetivo de la misma, el favorecimiento de la igualdad de hombres y mujeres.

4) Berdintasunaren arloko enpresa-egiaztagiri edo bereizgarri bat, edo emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunean entitate laguntzailea izatearena, edo antzeko agiri ofizialen bat.

4.º Certificado o distintivo empresarial en materia de igualdad, o como entidad colaboradora en igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres, o cualquier otro análogo de carácter oficial.

5) Emakumeen eta gizonen berdintasunerako plana eta/edo familia, lana eta bizitza pertsonala uztartzeko neurriena.

5.º Plan para la Igualdad de mujeres y hombres, y/o de medidas de conciliación para la vida familiar, laboral y personal.

6) Erakundearen zuzendaritza batzorde edo organoko kideen % 40 gutxienez emakumeak direla jasotzen duen ziurtagiria.

6.º Certificado de que la Junta u órgano directivo de la entidad esté participado al menos en un 40 % por mujeres.

h) Legezko edo borondatezko ordezkaritza zuzenbidean baliozkoa den edozein bitartekoren bidez egiaztatu beharko da.

h) La representación, legal o voluntaria, deberá acreditarse por cualquier medio válido en derecho.

3. Eskabidea erakundearen legezko gaitasuna duen pertsonak sinatuko du, eta, egoitzan eskuragarri dagoen ereduaren arabera, honako hau bete beharko du:

3. La solicitud irá firmada por aquella persona con capacidad legal de la entidad que deberá cumplimentar, según modelo disponible en Sede, lo siguiente:

a) Koordinazio-egituraren kide anitzeko gobernu-organoa osatzen duten pertsonen kopurua, sexuaren arabera banatuta, eta batzordeburua nor den banan-banan zehaztuta.

a) Número de personas integrantes del órgano colegiado de gobierno de la estructura de coordinación, disgregado por sexo, especificándose individualmente el género de quien ostente la presidencia.

b) Koordinazio-egituran dauden erakundeen zerrenda eta/edo 2022an aholkularitza-zerbitzua eman zaien erakundeena, honako hauek zehaztuta:

b) Relación de las entidades integradas en la estructura de coordinación y/o de aquellas entidades a las que se haya prestado el servicio de

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9A1L-88VK-P7BJ-N6AF
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

erakunde horietan zenbat pertsona dauden, haien sozietate-egoitza zein udalerritan dagoen, eta proiektuaren onuradun izan daitezkeen pertsonen kopurua, sexuaren arabera bereizita.

asesoramiento en 2022, indicando el número de personas integrantes de dichas entidades, municipio donde radica su sede social y el número de personas físicas beneficiarias del proyecto segregadas por sexo.

c) Erakunde eskatzaileak kontratatutako langileen zerrenda.

c) Relación de las personas trabajadoras contratadas por la entidad solicitante.

d) Erakunde eskatzaileak funtzionamenduan daramatzan urte osoak, sortu zenetik eskabidea aurkeztu arte.

d) Años completos de funcionamiento de la entidad solicitante, desde su creación hasta la presentación de la solicitud.

e) Kontratatutako langileei jakinarazi izanari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, Bizkaiko Foru Aldundiak, ahal denean, haien euskara-titulazioari buruzko datuak lortzeko elkarreraginean jardungo duela adierazten duena, betiere langileak berariaz aurka egiten ez badu.

e) Declaración responsable relativa a haber informado a su personal contratado de que, salvo oposición expresa de este, la Diputación Foral de Bizkaia, cuando sea posible, interoperará para obtener los datos de su titulación de euskera.

f) Eskatzaileak aurreikusitako urteko guztizko diru-sarrerak, gardentasunaren arloan aplikatu beharreko araudia betez.

f) Los ingresos totales anuales previstos por la solicitante, en cumplimiento de la normativa aplicable en materia de transparencia.

7. oinarria. *Dokumentazio egiaztagarria.*

Base 7. *Documentación verificable.*

Dauden datu-bitartekaritzarako sistemen bidez, Bizkaiko Elkarreragingarritasun Nodoa erabilita, Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Saileko Kultur Ekintzako Zerbitzuak egiaztatu eta kontsultatu egingo ditu administrazio publikoek parte-hartzaileei buruz dituzten datuak, dekretu honen izapidetze administratiborako beharrezkoak direnean, interesdunak modu espresuan kontra dagoela adierazten ez badu. Kontra egonez gero, arrazoiak adierazteaz gainera, behar diren datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko dira.

El Servicio de Acción Cultural del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte, mediante los sistemas de Intermediación de datos disponibles, a través del Nodo de interoperabilidad de Bizkaia, realizará las comprobaciones y consultas pertinentes de los datos de las participantes necesarias para la tramitación administrativa del presente decreto que obren en poder de las Administraciones Públicas, salvo oposición expresa de las mismas, en cuyo caso, además de indicar los motivos de su oposición, deberán aportarse los datos o documentos correspondientes.

Datu horiek honako hauek dira:

Los referidos datos son:

a) Banku kontuaren titulartasun datuak.

a) Los datos de titularidad de la cuenta bancaria.

Eskatzaileak uko egiten badio administrazioak bere bitartekoak erabiliz bankuko datuak egiaztatzeari, banku-helbideratzearen fitxa behar bezala beteta aurkeztu beharko da.

En caso de que la solicitante se oponga a que esta Administración compruebe dichos datos bancarios por sus propios medios, deberá aportarse ficha de

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9A1L-88VK-P7BJ-N6AF
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

domiciliación bancaria debidamente cumplimentada.

b) Zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

c) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

d) Erakundeak kontratatutako langileen euskara-titulazioa.

Arrazoi teknikoak direla eta, ezinezkoa bada elkarreragingarritasunera jotzea, Kultur Ekintzako Zerbitzuak izapideak egiteko beharrezkotzat jotzen dituen datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu.

Datu pertsonalak eskuratzeko modua bat etorriko da Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (EB) eta erregelamendu hori garatzen duen araudian ezarritakoarekin bat, bai eta Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat etorriz.

8. oinarria. *Eskabideak zuzentzea edo hobetzea.*

1. Eskabideak behar bezala beteta ez badaude, edo eskabidearekin batera foru-dekretu honetan eskatutako agirietakoren bat aurkeztu ez bada, errekerimendua egingo zaio erakunde eskatzaileari, hamar (10) egun balioduneko epearen barruan akatsa zuzendu dezan edo beharrezko agiriak aurkez ditzan. Era berean, ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela eta, behin ebazpena emanda, eskaera artxibatu egingo dela.

2. Edonola ere, Kultur Ekintzako Zerbitzuko Gizarte eta Hezkuntza Programen Atalak aurkezten diren eskabideak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du.

b) Certificado de estar al corriente de las obligaciones tributarias.

c) Certificado de estar al corriente de las obligaciones con la Seguridad Social.

d) Titulación de euskera del personal contratado por la entidad.

En todo caso, si por causas técnicas la interoperabilidad no fuera posible, el Servicio de Acción Cultural podrá requerir datos o documentos necesarios para la tramitación.

Cualquier acceso a los datos personales se realizará de conformidad con lo previsto al respecto en Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y su normativa de desarrollo, así como en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales.

Base 8. *Subsanación o mejora de las solicitudes.*

1. Si las solicitudes no se formalizaran completamente o faltara alguno de los documentos exigidos por el presente decreto foral, se requerirá a la entidad solicitante para que en el plazo de diez (10) días hábiles subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, archivándose la misma, previa la correspondiente resolución.

2. En todo caso, la Sección de Programas Socioeducativos del Servicio de Acción Cultural, podrá solicitar cuanta información complementaria considere necesaria para la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9A1L-88VK-P7BJ-N6AF
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

adecuada comprensión y evaluación de las solicitudes presentadas.

9. oinarria. *Diru-laguntzak emateko araubidea.*

Base 9. *Régimen de concesión.*

Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20. artikuluaren 1. zenbakiaren bat, diru-laguntzak emateko ohiko prozedura norgehiagoka araubidea da.

Conforme al artículo 20.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, el procedimiento ordinario de concesión de subvenciones se tramitará en régimen de concurrencia competitiva.

Baina, zenbaki horren hirugarren paragrafoan xedatutakoarekin bat, diru-laguntzetarako dagoen zenbateko osoa diru-laguntzaren onuradunen artean hainbatu ahal izango da, salbuespenez.

No obstante, el mismo precepto en su tercer párrafo faculta, con carácter excepcional, el prorrateo del importe global máximo destinado a las subvenciones entre las beneficiarias de la subvención.

Kontuan hartuta dekretuaren helburua dela koordinazio-egituren mantentzea sustatzea eta aholkularitza ematea gazteen aisiaren eta astialdiaren arloan diharduten irabazi-asmorik gabeko erakunde horiei, deialdi honetako diru-laguntzak emateko araubideak salbuespeneko hainbanaketa-sistema izango da.

Considerando que el objeto del decreto es favorecer el mantenimiento de las estructuras de coordinación, y el asesoramiento a entidades sin ánimo de lucro dedicadas al ocio y tiempo libre de carácter juvenil, el régimen de concesión en esta convocatoria será el excepcional sistema de prorrateo.

Horretarako, puntuak emango zaizkio aurkeztutako eskabide bakoitzari, eta 10. oinarriaren lehen zenbakian ezarritako gutxieneko puntuaziora heltzen diren eskabide guztien puntuen batura egingo da. Aurrekontu-kreditua eskabide horietan lortutako puntu guztien artean zatituko da, eta puntu bakoitzeko balio ekonomikoa zehaztuko da.

A dichos efectos, se puntuará cada solicitud presentada y se sumarán los puntos de todas las solicitudes que superen la puntuación mínima establecida en el apartado primero de la base 10. El crédito presupuestario se dividirá entre el total de los puntos obtenidos por dichas solicitudes determinando un valor económico por punto.

Eskabide bakoitzari emango zaion diru-laguntza kalkulatzeko, biderkatu egingo dira lortutako puntu guztiak eta ezarritako puntuaren balio ekonomikoa, araudi honen 10. oinarriko 2. zenbakian zehaztutako mugekin.

Cada solicitud recibirá el importe correspondiente al resultado de multiplicar el número total de puntos obtenidos por el valor económico del punto establecido, hasta los límites previstos en el apartado 2. de la base 10 de la presente normativa.

10. oinarria. *Balorazio-irizpideak.*

Base 10. *Criterios de valoración.*

1. Dirulaguntzen zenbatekoa zehazteko, beheko irizpideak eta haien haztapena hartuko dira kontuan. Gehienez, 100 puntu emango dira, honela banatuta:

1. Al objeto de determinar el importe de las subvenciones se tendrán en cuenta los siguientes criterios y su correspondiente ponderación, que,

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 9A1L-88VK-P7BJ-N6AF
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

sobre un máximo de 100 puntos se establecen como sigue:

a) Erakunde kopurua: koordinazio-egituran dauden erakundeen kopurua zenbat eta handiagoa izan, edo, bestela, erakunde eskatzaileak 2022an aholkularitza zerbitzuak eman zaizkien erakundeen kopurua zenbat eta handiagoa izan, orduan eta puntu gehiago emango dira; 20 puntu gehienez, honela banatuta:

a) Número de entidades: se valorará el mayor número de entidades que se integren en la estructura de coordinación, o en su caso el mayor número de entidades sin ánimo de lucro dedicadas al ocio y tiempo libre a las que la entidad solicitante haya prestado servicios de asesoramiento durante el 2022 valorándose hasta un máximo de 20 puntos de la siguiente manera:

0 - 5 erakunde: 5 puntu.

De 0 a 5 entidades: 5 puntos.

6 - 10 erakunde: 10 puntu.

De 6 a 10 entidades: 10 puntos.

11 - 15 erakunde: 15 puntu.

De 11 a 15 entidades: 15 puntos.

16 erakunde edo gehiago: 20 puntu.

16 entidades o más: 20 puntos.

Alderdi hau baloratzeko, kontuan hartuko da koordinatuak izan diren eta/edo aholku jaso duten erakundeei emandako zerbitzuaren dokumentua, 6.2.d) oinarrian aurkeztua.

